



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2019.11.28

Tolosako Udaletxean, 2019ko azaroaren 28an, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaia aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Belloso

Jose Francisco Amantegi Zubiria

Joseba Koldo Ormazabal Lopez

Egoitz Sorozabal Iturain

Xabier Balerdi Tolosa

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe

Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Aitana Amondarain Esquisabel

Aitzol Garcia Azurmendi

Olatz Artola Apezteguia

Ander Figuerido Zubiria

Garbiñe Marzol Ormazabal

Xabier Martinez Quinquilla

Jose M^a Villanueva Telleria

Ez da bertaratu:

Kristina Pelaez Errazquin

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Haurren eskubideei buruzko adierazpen instituzionala.
2. Ondorengo akta onartzea:
2019ko urriaren 31ko Osoko Bilkurakoa.
3. Onartzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena Tokiko Poliziaren oinarritzko eskalako agenteen



TOLOSAKO
UDALA

laugarren deialdi bateratuan sartzeko.

4. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.
5. Onartzea 2020 .urterako taxien tarifak.
6. Hasierako onarpena ematea Iñauterietako dirulaguntzen eta antolamenduaren ordenantza bereziari.
7. Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko sarera atxikitzea.
8. Hasierako onarpena ematea Tolosako Landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua emateko auzolana arautzen duen udal ordenantzari.
9. 1867/2019 eta 1921/2019 dekretuen berri ematea.
10. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2019ko urriaren 1etik 31ra (2019/1571-2019/1778).
11. 2019ko Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpen instituzionala.
12. Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna.
13. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. Haurren eskubideei buruzko adierazpen instituzionala.

Parte-hartzeak:

- ... Alkateak; *“Zorionak, aurkezpen txukuna eta oso gauza inportanteak esan dituzue. Beraz, guri gutxi geratzen zaigu esateko. Orain hitza hiru bozemaileei emango diet. eta gero bozketa egingo dugu.”*
- ... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): *Nik hamabi-hamahiru urte nituenean Espainian ez zegoen demokraziarik, baina gerora alkatea izan zen Iñaki Linazoarorekin bilera izan genuen hemen. Garai hartan gauza gehienak debekatuta zeuden eta auzoz auzo antolatu ziren bileretan, bera gidari izanik esaten zigun klandestinitatenean, hemen Tolosan, iritsiko zela herriak gobernatzeko behar zuen aginte politikoa. Hainbeste urte pasata gero, berrogei urte, hamabi urtekin hor eserita nengoen eta oran, hemen nago. Esan nahi dudana da guk egiten duguna eta zuek egin duzuen lana oso inportantea dela, orduan bizitutako esperientziari esker seguruenik hemen nago gaur. Hemen daukagun sistema demokratikoa ez da perfektua, baina horretarako ezinbestekoa da zuek egin duzuen, parte-hartze aktibo eta kritikoa izatea. Zuek orain, hamabi, hamahiru urte dituzue eta sei urte barru*



hemezortzi izango dituzue, eta Tolosarren ordezkariak aukeratzeko aukera izango duzue, botoa emateko. Gero, ikasketak egingo dituzue eta agian, hogeitau urte barru, alkatea edo zinegotzi izateko aukera izango duzue. Oso lan aberasgarria, da, giza-baloreak ezagutzeko aukera ematen du. Animatuko nizueke gaur hasitako bidearekin jarraitzea, Tolosa guztion zerbitzura egoteko aukerak izango dituzue.. Sistema demokratiko hori lortzeko ezinbestekoa da gure parte-hartze zuzena. Alde horretatik, eskerrak ematen dizkizuet egin duzue esfortzuagatik eta hona etortzeagatik. “

... Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU) *“Tolosako EHBildutik adierazi nahi dizuegu oso pozik gaudela zuek hemen Udalbatza aretoan izateagatik eta ezkerak denoi etortzeagatik Bestalde, guztiz bat gatoz irakurri duzuen adierazpen honekin. Pertsona heldu eta herritarren ordezkariak garen heinean irakurri berri dituzuen eskubideak bermatzeko garaian daukagun ardura onartzen dugu. Bestalde, Udala gobernuari adierazi nahi diot proiektuarekiko gure erabateko atxikipena eta horrelako egitasmo batek Tolosarron bizi kalitatea hobetzeko balio duela. Azkenik, proiektu hau herriko haurretan zentratzen den arren, ez daukagu inongo zalantzarik tolosa guztion onurako dela, izan ere, egitasmo honen ideologo edo sortzailea den Francesco Tonuccik esaten duen bezala, haurrak kalean egoteak herria osasungarria dela esan nahi du.“*

... Alkatea: *“Haurren eskubideen aldarrikapena, 1959ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Erakundearen batzar nagusiak egindako aldarrikapena da, haurren eskubideen unibertsalak finkatuz. Haurren eskubideak edo haurtzaroren eskubideak jaiotzeagatik bakarrik haurrek eta nerabek dituzten eskubideak dira, utzi ezinak direnak, berezkoak eta nahitaezkoak direnak ditu haurtzaro on bat izateko. Eskubideak zuek aipatu dituzue oso ondo, kategoria batzuetan ere banatu daitezke:: biziraupen eskubidea, garatzeko eskubidea, babestua izatekoa, parte-hartze eskubidea eta entzuna izateko eskubidea. Entzuna izateaz gain, zuen iritzia kontutan izateko eskubidea duzue eta, beraz, Udala honen eginbeharra ere bada haurren iritzia ikuspuntu horretatik herria eraikitzea. Komunitatearen parte ere bazaretelako eta horrela sentitzea nahi dugulako. Zuek zer esana baduzue, noski, helduak bezain beste ekarpen egin ditzakezue eta funtsezkoa da gazteen eta haurren partaidetza horretatik sustatzea. Ildo horretatik sortu zen Haurren Hiria proiektua eskubide hori gauzagarria izan zedin. Eskertu nahi dizuet Haurren Hiria proiektu honen baitan egindako lan guztia, lan horri esker eta zuen iritzi esker, herri osoagoa eta demokratikoagoa egiten laguntzen diguzuelako. Ez dugu haurren iritzirik gabeko herririk nahi eta horregatik aurten nazioarteko egunaren harira Topic eta Zerkausia argiztatu ditugu urdinez zuek eskubideak dituzuela eta zer esana baduzue aldarrikatzeko eta agerian usteko. Beraz, mila esker. “*



TOLOSAKO
UDALA

Hona hemen ikastetxeetako hiru ordezkarien artean irakurri du duten adierazpena.

Honela dio:

Tolosako Haurren Hiria proiektuan parte-hartzen dugu eta Tolosako haurren ordezkari gisa gatoz udalbatzar honetara. Haurren Hirian gure iritzia emateko aukera dugu eta guztion artean zer nolako Tolosa nahi dugun adieraztekoa. Gaurkoan helburua gure eskubideak zein diren zuei gogoraraztea izango da. Munduko neska-mutil guztiak eskubide berberak ditugu. Eskubide hauek hitzarmen batean jasota daude, 54 artikulua ezberdinetan. Guk haien laburpen bat egin dugu, hona hemen:

Hitzarmena. Testua

Haur guztiak izan beharko genituzke eskubide berdinak, berdina dio norberaren jatorria zein den, sexua edo azal-kolorea, hitz egiten dugun hizkuntza, gure familiaren egoera ekonomikoa, gure sinesmena edo gure gurasoena, edo-eta desgaitasunen bat badugu ere. Gure behar berezietara egokitu behar duzue. Agintariek edo pertsona helduek gurekin zerikusia duten erabakiak hartzen dituzenean, gure garapenerako eta ongizaterako onena dena egin behar duzue. Agintariek, gurasoek eta gure hezkuntzaren ardura duzuen pertsona guztiak erantzukizunak dituzue guregan. Gure eskubideak eta betebeharrak errespetatu behar dituzue. Gure familiek eskubideak gauzatzeko lagundu behar dituzue. Haur guztiak dugu modu duin batean bizitzeko eskubidea. Gobernuan zaudetenok ahal den guztia egin behar duzue gure biziraupena eta garapena ziurtatzeko.

Osasuna

Elikadura egokia eta kutsatu gabeko ingurunea jasotzeko eskubidea dugu.

Hezkuntza

Eskubidea dugu derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza jasotzeko, baita goi mailako hezkuntzan berdintasunean sartzeko eta aritzeko ere.

Aisialdia

Jolasteko, atsedeen hartzeko eta kirol, arte edo-eta kultura zaletasunak izateko eskubidea dugu. Zuen ardura du guretzat eskaintza egoki bat egitea.

Lana

Baimendutako adina bete arte, lanik ez egiteko eskubidea dugu.

Bizitza pribatua

Eskubidea dugu gure bizitza pribatua errespetatua izan dadin, baita gure bizilekua ere.

Informazio egokia jasotzea

Eskubidea dugu komunikabideetatik informazioa jasotzeko eta guretzat kaltegarria izan daitekeen informaziotik babestua izateko.

Iritzia

Gure iritzia askatasun osoz emateko eskubidea dugu, eta iritzi hori kontuan hartu beharko duzue, Tolosako lehen mailako herritarrak garelako ere. Hori ahalbidetzeko Tolosan Haurren Hiria dugu. Mila esker!



TOLOSAKO
UDALA

Adierazpen askatasuna

Askatasun osoz informazioa bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea dugu, beti ere beste norbaiten eskubideei kalte egin gabe.

Hauxe da haurren eskubideei buruzko hitzarmeneko artikulua batzuek diotena laburbilduta. Eskerrik asko gu entzuteagatik eta tolosan ahotsa izan dezagun ahalbidetzeagatik.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Haurren eskubideei buruzko adierazpen instituzionala.

2. Ondorengo akta onartzea: 2019ko urriaren 31ko Osoko Bilkurakoa.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu da.

3. Onartzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalako agenteen laugarren deialdi bateratuan sartzeko.

Parte-hartzeak:

- ... Xabier Balerdi Tolosa Antolakuntza batzordeko zinegotzi delegatua (EAJ-PNV):
"Irizpenaren aurrekariak batzarkideei azaldu ondoren, adierazi du laburbilduz, hitzarmenaren helburua dela, Arkaute akademiak egingo duen hautaketa prozesuaz baliatzea hutsik dauden udaltzainen lau lanpostuak betetzeko baliabide teknikoak aprobetxatzeko."



TOLOSAKO
UDALA

... Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU): *“Notizia ona iruditzen zaigu hitzarmenaren bidez Udaltzaingoaren lau lanpostu egonkortzea jakiteak, baliabide tekniko eta ekonomikoak erabiltzea. Nahiko genuke Udaltzainak izan behar duen herri izaera mantentzea eta formakuntzan Udaltzaingoak dituen berezitasunak zaintzea.”*

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO AZAROAREN 20KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

I.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Tolosako udala jabe dira toki mailan tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agente plazak bitarteko izaeraz hornituta daudela hainbat kasutan, eta horiek hornitzea beharrezkoa izaten da zerbitzua modu egoki batean eman ahal izateko.

Honetarako, eta plantilla egonkortzeko asmoz, bai Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eta baita Tolosako udalak ere, elkarlanean bultzatu beharko dute Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako deialdi bateratuan hutsik dauden hainbat plaza betetzeko.

II.- Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzak eta koordinazio-mekanismo bateratuak behar ditu, hain zuzen, azken horien ekintza-baliabideak optimizatzeko.

III.- Tolosako udalak 2019 urtean lanpostuen zerrendan hutsik dauden udaltzaingoko lau agenteen plazak hornitzeko hautaketa prozesua hasi nahi du. Honetarako, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak tokiko agenteak hautatzeko, deialdia egiteko eta horiek prestatzeko baliabide tekniko eta azpiegitura nahikoak dituzenez, Tolosako udalak egokia deritza tokiko poliziako oinarrizko eskalako behin-betiko izaeraz agente plazak hautatzeko aipatu erakundearekin lankidetzan aritzeko hitzarmena sinatzea.

Hori guztia aintzat hartuta, udaleko Udaltzaingoa eta Giza Baliabide sailetik, Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalako agenteentzako deialdi bateratuan sartzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Tolosako udalaren artean lankidetzak hitzarmena izenpetzea proposatu da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren izaera eta xedea

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 6. artikulua eta ondorengoek arautzen zuen Euskal Herriko Poliziaren Akademia, Euskadiko Segurtasun



Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen a) ataleko xedapen indargabetzaileak indargabetu zuen arte.

Lankidetzaz hitzarmena izenpetzea proposatu den erakundearen – **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia** – izaerari dagokionean, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 20. artikulua, **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Administrazio-izaerako organismo autonomoa dela xedatzen du eta bere helburuak betetzeko berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituela** eta 21. artikulua, **segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia dagoela**.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren helburua herritarren segurtasuna lortzeko zerbitzu publikoak ematen jarduten diren edo parte hartzen duten pertsonak beharrezkoa den lanbide-heziketa eskuratzeko baldintzak eta bitartekoak sortzea da eta gaikuntza hori beste pertsona batzuei ere eskaintzea, baldin eta, segurtasun publikoko zerbitzuak izan ez arren, interes profesionala badute edo beren jarduerak zerbitzu horien garapenean eragiten badu.

Bestalde, 15/2012 Legearen 20. artikuluko 3. atalak xedatzen du, **“Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren xedea da Gobernuak segurtasun publikoaren arlorako duen prestakuntza-, hautaketa-, ikerketa- eta berrikuntza-politika gauzatzea, hala Euskal Herriko Poliziari dagozkion arloetan nola babes zibilar eta larrialdi-zerbitzuei dagozkienetan. Horretarako, Euskadiko erakunde erkideei dagozkien eskumenen eremuaren barruan eta lege honetan ezarritakoarekin bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun publikoko politika gauzatzen jarduten edo esku hartzen duten giza baliabideen prestakuntza eta, hala dagokionean, hautaketa planifikatu eta kudeatu beharko ditu.”**

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eginkizunen artean daude, besteak beste: (15/2012 Legearen 23. artikuluan)

b) Toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko oinarriko arauak egitea. Arauok Ertzaintzan beste horien baliokide diren eskala eta kategorietarako ezarritakoen antzeko irizpideei egokituko zaizkie. Orobat, eta batez ere, guztientzako berdinak eta nahitaez aplikatzekoak diren hautaketa-prozesuetako programa, eduki eta egiturak egitea.

c) Euskal Herriko Polizia osatzen duten kidegoetako eskaletan eta kategorietan sartzeko alde aurreko prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatu, antolatu eta garatzea, eta Euskal Herriko Poliziako kideen etengabeko prestakuntza eta espezializatorako prestakuntza antolatu eta garatzea. Horretarako, akademiak, dagozkien administrazioekin batera, kidego horien prestakuntzabeharrian ebaluatuko ditu aldiro-aldi. Akademiak toki-erakundearen prestakuntza-zentroei eskuordetu ahal izango dizkiete, hala eskatzen badute, beren menpeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroen eta praktikaldien antolaketan eta garapena.

Hizkuntza-trebakuntzarako ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea Ertzaintzako kideak euskalduntzea lortzeko.



d) Udalerrien mendeko karrerako funtzionarioen prestakuntza-planerarako oinarrizko irizpideak prestatzea, haien garapena koordinatzea eta gauzatzen laguntzea.

e) Udal-jagole edo mugikortasun-agente sartzeko oinarrizko arauak egitea, eta horien prestakuntza-ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea. Akademiak hala eskatzen duten tokierakundeek prestakuntza-zentroen gain utzi ahal izango du langile horien prestakuntza-ikastaroen antolaketa eta garapena.

f) Dagokion udalerririk akademiaren esku uzten duenean, toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoen eskala eta kategorietan sartzeko hautaketa-prozesuak gauzatzea. Era berean, udalerririk elkarlanean aritu ahal izango da, eta laguntza teknikoa ere eskaini ahal izango die, polizia-kidegoetako funtzionarioen hautaketari dagokion gaitan. Halaber, udalerririk hautaketa prozesuetarako deialdiak egiten dituztenean, eginkizunak egokiro betetzeko behar dituzten lankidetz-materiala eta laguntza teknikoa eskuratu ahal izango dizkie epaimahaiei.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin izenpetzea proposatu den lankidetzaren hitzarmenaren xedea – tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa eratzea – beraz, erakunde autonomo horren xede eta eginkizunen artean sartzen da.

2.- Lankidetzaren hitzarmenaren jardunbidea eta izapidetza

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetzaren arautzen ditu, dituzten xedek ahalik eta era onenean bete dituzten.

Aipatu Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetzaren hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Bestalde, lankidetzaren hitzarmenaren xedeari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 3. artikulua 3. atalaren 3. artikulua, euskal herri-administrazioek eta haien ardurapeko zerbitzuak lankidetzaren, koordinazioaren eta elkarlanaren printzipioen arabera izango dituztela elkarrekin harremanak xedatzen du eta bestalde, 44. artikulua 1. atalaren berriz, segurtasun publikoaren eskumena duen sailak polizia-lankidetzarako hitzarmenak sinatzeko aukera daukala, horretarako interesa duten udalekin, lankidetzarako eta elkarlanerako modu eta prozedurak zehazteko.

Finean, formulazio horiek 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 103.1 artikulua aplikazio zehatzak dira: *La Administración Pública sirve con objetividad los intereses generales y actúa de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación con sometimiento pleno a la ley y al Derecho.*

Halaber, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko titulua VI. Kapituluak,



Lankidetzta hitzarmenak arautzen ditu, ondoko definizioarekin: **“1. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.**

No tienen la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles.

Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.”

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren artean izenpetzea proposaturiko lankidetzta hitzarmena, 40/2015 Legearen 47.2 artikuluko a) atalean xedaturiko hitzarmen mota izango litzateke, (a) *Convenios interadministrativos firmados entre dos o más Administraciones Públicas, o bien entre dos o más organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes de distintas Administraciones públicas, y que podrán incluir la utilización de medios, servicios y recursos de otra Administración Pública, organismo público o entidad de derecho público vinculado o dependiente, para el ejercicio de competencias propias o delegadas.*)

Hitzarmenaren baliozkotasun eta eraginkortasunari dagokionean, 40/2015 Legearen 48. artikulua, bete beharreko baldintzak xedatzen ditu, horien artean, kasurako aipatzekoak:

- Hitzarmenak izenpetzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu, zerbitzu publikoen eta baliabideen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak burutzeko laguntza eman eta aurrekontuaren egonkortasun eta finantza jasangarritasunaren inguruko legedia bete beharko ditu (48.3 artikulua)
- Hitzarmenak aldean adostasuna azalduz perfektionatzen direla (48.8 artikulua)

Hitzarmenek zehaztu beharreko gutxieneko materiak 40/2015 Legearen 49. artikulua xedatzen ditu, ondokoak:

a) Sujetos que suscriben el convenio y la capacidad jurídica con que actúa cada una de las partes.

b) La competencia en la que se fundamenta la actuación de la Administración Pública, de los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes de ella o de las Universidades públicas.

c) Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto para su cumplimiento, indicando, en su caso, la titularidad de los resultados obtenidos.



TOLOSAKO
UDALA

d) Obligaciones y compromisos económicos asumidos por cada una de las partes, si los hubiera, indicando su distribución temporal por anualidades y su imputación concreta al presupuesto correspondiente de acuerdo con lo previsto en la legislación presupuestaria.

e) Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y, en su caso, los criterios para determinar la posible indemnización por el incumplimiento.

f) Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes. Este mecanismo resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto de los convenios.

g) El régimen de modificación del convenio. A falta de regulación expresa la modificación del contenido del convenio requerirá acuerdo unánime de los firmantes.

h) Plazo de vigencia del convenio teniendo en cuenta las siguientes reglas:

1.º Los convenios deberán tener una duración determinada, que no podrá ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior.

2.º En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek ahalmena izango dute pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatuekin hitzarmenak, kontratuak edo bestelako itunak formalizatzeko, honako baldintza hauek kontuan hartuta: indarrean dagoen araubide juridikoaren aurkakoak ez izatea, dagokion gaiaren gain transakzio-debekurik ez izatea, eta dagokion akordioa interes publikoan oinarriturik egotea.

Beraz, Tokiko Poliziaren Oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa eratzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren artean izenpetzea proposaturiko lankidetzaren hitzarmena, toki araubidearen arloan indarrean dauden aipatu lege-xedapenek, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen babesean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapituluak, Lankidetzaren hitzarmenak arautzen dituenak, xedaturikoarekin bat egingo da.

Jardunbideari dagokionez, Lankidetzaren hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko gardentasun atarian Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua (b) atalean xedaturikoarekin bat, eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

ESKUMENA.- Lankidetzaren hitzarmen hau onartzeko eskumena Udalbatza Plenoarena da, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedaturikoaren arabera.



TOLOSAKO
UDALA

Hau guztia ikusirik, Antolakuntza batzordeak, Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Cristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleriaren aldeko botuarekin, ahobatez, hauxe da eman duen

IRIZPENA

LEHENA.- Tokiko Poliziaren Oinarrizko Eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa sortzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea, ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

“LEHENA.- Xedea eta helburua. Hitzarmen honen xedea tokiko poliziako oinarrizko eskalako behin-betiko agenteen laugarren deialdi bateratuan sartzea da, agenteen hautaketa prozesuan burutzeko.

Hitzarmen honen helburua, beraz, Udal sinatzaileen eskaerei erantzutea da eta haiei zerbitzua eskaintzea, tokiko poliziaren oinarrizko eskalako hutsik dauden lau agente-plaza betetzeko, kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz eta publizitate, berdintasun, meritu eta ahalmen printzipioekin bat.

BIGARRENA.- Deialdi bateratuaren hautaketa prozesuan parte hartzeko aplikazio-eremua eta pertsona hartzaileak. Deialdi hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetza-hitzarmen hau sinatu duten Udalek bakarrik parte hartu ahalko dute, eta Tolosako udalak bertan ezarritako eta dituen agente lanpostuen ezaugarriekin oinarriak oosatuko dira.

Hautaketa prozesu honen zati izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak deitutako hautaketa-prozesuan parte hartu duten eta hori gainditu duten, eta Akademia horrek berak Arkauteko instalazioetan antolatutako prestakuntza-ikastaroa egingo duten pertsonak.

HIRUGARRENA.- Aldeen betebeharrak. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari dagozkion sustapen-lanei eragin gabe, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak hautaketa-prozesu bat deituko du; onartutako eta kanpoan utzitako hautagaien zerrenda onartuko du; kalifikazio-epaimahaiko pertsona titularrak eta ordezkioak izendatuko ditu; frogak antolatuko eta kudeatuko ditu; gainditu duten pertsonen zerrenda ezagutaraziko du eta hautagaien prestakuntza gauzatuko du.



TOLOSAKO
UDALA

Hautagaiek hasiera batetik deialdiak eskaintzen dituen aukerak ezagut ditzaten, Akademiak hautaketa-prozesuaren deialdia behar bezala iragarriko du, hitzartutako Udalen web guneetan ere argitaratuz.

LAUGARRENA.- Jarraipen Batzordea. *Hitzarmena behar bezala zaintzeko, segimendu-batzorde tekniko bat sortu da, lau kidez osatua: bi Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioa ordezkatzuz eta beste bi dagokion Udala ordezkatzuz. Lehendakaritza Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioako ordezkarietako batek beteko du.*

Batzorde horren zereginak hauek dira: hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmenaren urratsak aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, hori hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, aldeetako batek horrela eskatzen badu, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

BOSGARRENA.- Hitzarmena aldatzea. *Lankidetzeta-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke, bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa gehituko dizkiote dokumentu honi.*

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta auzigaiak. *Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzeta-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazio-araubidea bete beharko da.*

Laugarren klausulan jasota dauden Segimendu Batzordeari esleitutako funtzioei eragin gabe, hitzarmen hau garatzean eta egikaritzean bi aldeen artean sor litezkeen liskarrak administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren esku jarriko dira.

ZAZPIGARRENA.- Indarraldia eta amaiera.

Hitzarmen hau aldeek sinatzen dutenean sartuko da indarrean, eta indarraldia 2020ko abenduaren 31an bukatuko da. Nolanahi ere, isilbidez luzatuko da ondoz ondoko urteko aldietan, aldeetako batek salatu ezean. Salatzeko, idatziko jakinarazpena egin behar zaio beste aldeari, hitzarmenaren edo luzapenen mugaeguna baino hilabete lehenago gutxienez.



TOLOSAKO
UDALA

Hitzarmena amaitu ahal izango da, aldeek edozer momentutan hala adosten badute.

ZORTZIGARRENA.- Erantsitako dokumentazioa. Hitzarmen honekin batera, ondorengo dokumentuak doaz, Tokiko poliziaren oinarritzko eskalako agenteen hautatzeko prozedura arautzen duten oinarrien zirriborroa.

BIGARRENA.- Udal honetako Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat, eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari eta Tolosako udaleko Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Arkauteko akademiak hitzarmenean aldaketarik proposatutako balu, Tokiko Gobernu Batzarrean delegatzea aldaketa horiek egiteko eskumena, beti ere aurretik Bozeramaile Batzordearen adostasunarekin. Adostasunik ez balego, proposatutako aldaketa ez ohizko bilkura batean onartu beharko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena Tokiko Poliziaren oinarritzko eskalako agenteen laugarren deialdi bateratuan sartzeko.



TOLOSAKO
UDALA

4. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.

Alkateak iragarri du irizpena:

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO AZAROAREN 20KO IRIZPENA.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2017 eta 2018ko ekitaldiko faktura data dute eta 2019an jaso ziren, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2019-09-12	2018-10-03	0600.226.99.151.10	MARIA VALENTINA MONTERO VILAR	03-18-002092	Banantze eta lagapen urbanistikoaren eskritura	378,43
2019-05-31	2017-01-31	0700.227.07.153.00	CENFORPRE. SERVICIO DE PREVENCIÓN	SS/000029/17	Berazubi eta suhiltzaileen irisgamitasun obraren segurtasuna eta osasunaren koordinazioa	272,25
2019-09-26	2018-11-28	0300.227.07.920.10	QUIRON PREVENCIÓN, S.L.U.	118459912	Prebentzio teknikoa (2018-11-01tik 2018-11-30ra)	1.116,91
2019-09-26	2018-10-24	0300.227.07.920.10	QUIRON PREVENCIÓN, S.L.U.	0118412250	Prebentzio teknikoa (2018-10-01tik 2018-10-30ra)	1.116,91

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharre dagokienez. 2018ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2019ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hau dela eta, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Itxitako ekitaldiko faktura hauek onartzea:



FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KOPURUA
2018-10-03	MARIA VALENTINA MONTERO VILAR NOTARIO	03-18-002092	378,43
2017-01-31	CENFORPRE. SERVICIO DE PREVENCION	SS/000029/17	272,25
2018-11-28	QUIRON PREVENCION, S.L.U.	0118459912	1.116,91
2018-10-24	QUIRON PREVENCION, S.L.U.	0118412250	1.116,91

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu ditu** itxitako ekitaldiko fakturak

5. Onartzea 2020. urterako taxien tarifak.

Parte-hartzeak:

- ... Alkateak proposamenaren berri eman du eta azaldu du batzordean taxilarien elkarteko ordezkariaren gain parte hartzen duten udalak, hau da, Tolosa, Billabona, Zizurkil eta Alegia. Gaineratu du, igoeraren arrazoi nagusiak: postuaren igoera, lan orduen kopurua, erregai eta aseguruaren prezioen igoera eta gainera, krisi garaian tarifa horiez ez direla mugitu, bere horretan mantendu direla. Hori guztia kontutan izanik batzordean zentzukoa ikusi zela %0,8 a igotzea.
- ... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): "Proposamenaren funtsarekin ados gaude, taxien tarifak % 0,8a igotzea, hau da KPIa. Proposamen honen kudeaketarekin aldiz, beste behin Gobernu honen aurreikuspen falta sumatu da, onarpena emateko denboraz larri gabilitza eta ohiko prozeduratik at adostu beharko dugu jakinda Agitaxen proposamena irailetik jarrita zegoela eta Tolosaldea Garatzenen urriaren 23an onartu zela. Bageneukan aurreko Antolakuntza batzordean diktaminatzea. Besterik gabe, gure kezka.



TOLOSAKO
UDALA

... Alkatea: *“Argitu bakarrik irailean ez, urriaren bukaera izan zela, beti izaten dela urte amaieran. Taxiaren elkartearen proposamenaren zain izaten gara urte amaieran Egia da Eusko Jaurlaritzan epea bete behar dela eta bihar bertan bidali behar da. Agintax-i ere adierazi diogu proposamena datorren urteetan posible bada behintzat lehenago egiteko, baina kontutan izan behar da lehen aipatutako herri horretako batzuk plenoak ez dituztela hileroko egiten.”*

Gaia diktaminatu gabe dagoenez, lehenik, bozketara jarri da gaia tratatzeko eta bozkatzeko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du gaia tratatu eta bozketara jartzea.

Agitax, Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, 2020rako Tolosaldeko taxi tarifen proposamena aurkeztu zuen Tolosaldea Garatzen S.A.n.

Lehiberri Zentroan, 2019ko urriaren 23an, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak bildu ziren, Agitax taxi elkarteak 2020. urterako aurkeztutako tarifen proposamena aztertzeko.

Proposamenean, datorren urteko tarifak kalkulatzeko, aurtengoei % 0,8ko igoera aplikatzea eskatu dute.

Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, honakoa erabaki zuten bildutako ordezkariak:

a) 2020. urterako 2019. urteko tarifari % 0,8ko igoera aplikatzea.

b) Ondorioz, 2020ko taxi tarifak honela geldituko lirateke:



TOLOSAKO
UDALA

- I Tarifa (lanegunetan 7:00etatik 22:00etara):
Gutxieneko tarifa: 4,2329 euro
Kilometroko: 1,0392 euro
Itxarote ordua: 18,8425 euro
- II Tarifa (egunero 22:00etatik 7:00etara, eta larunbat, igande eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan 7:00etatik 22:00etara):
Gutxieneko tarifa: 4,7772 euro
Kilometroko: 1,5808 euro
Itxarote ordua: 27,7558 euro

Hori horrela, proposamena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA: Onartzea Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak egindako proposamena, eta horren arabera, 2020. urterako 2019. urteko taxi tarifei % 0,8ko iguera aplikatuta, tarifak honela uztea:

- I Tarifa (lanegunetan 7:00etatik 22:00etara):
Gutxieneko tarifa: 4,2329 euro
Kilometroko: 1,0392 euro
Itxarote ordua: 18,8425 euro
- II Tarifa (egunero 22:00etatik 7:00etara, eta larunbat, igande eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan 7:00etatik 22:00etara):
Gutxieneko tarifa: 4,7772 euro
Kilometroko: 1,5808 euro
Itxarote ordua: 27,7558 euro

BIGARRENA: Erabakia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailera bidaltzea.

HIRUGARRENA.- Tolosaldea Garatzen, S.A., entitateari akordioa jakinaraztea, tramitatzeko.

6. Hasierako onarpena ematea Iñauterietako dirulaguntzen eta antolamenduaren ordenantza bereziari.

Parte-hartzeak:

... Izarne Iglesia Garcia de Iturraspe (Kultura eta Festetako zinegotzi delegatua):
“Ordenantza honen inguruan lehenik eta behin azpimarratu eta balioan jarri nahiko nuke elkarlanean garatu dela eta herritarrekin eta talde politikoen partekatu eta



kontrastatua izan dela. Izan ere, horrelako gaiak adostasuna eskatzen baitute. Beraz, bidezkoa iruditzen zait prozesu honetan parte hartu duten guztiei eskerrak ematea. Ordenantzaren inguruan honako aipamenak egitea gustatuko litzaidake. Batetik, esango nuke ordenantzaren helburu edo eta xede nagusia dela diru-laguntzak emateko prozedurak zehaztu eta arautzea, gure Iñauterien izaera propioa eta bereziari eusteko eta txarangak, konpartsak eta karrozak babestu eta sustatzeko. Iruditzen zait ordenantza hau segurtasuna bermatzeko bidean ere oso positiboa izango dela. Bestetik, esan diru-laguntzak eskatu eta emateko prozeduraren inguruan betebeharreko baldintzak zein diren definitu dira ordenantzan eta hori hasieran aipatu dudan bezala eragile ezberdinekin batera egin dira, helburu horrekin burutu ditugun hainbat bileren bidez. Ordenantza honi ezker interesatu guztiek hasieratik jakingo dute diru-laguntzak eskatzeko zein dokumentu eta datu aurkeztu behar dituzten, eta, aldi berean, diru-laguntza jasotzeko aurrerapenik behar duten edo ez zehazteko aukera izango dute. Ildo beretik, diru-laguntzak horiek lortzeko ere betebeharrak zeintzuk izango diren zehaztu dira. Betebehar horiek definitzeko orduan jarraitu diren irizpidean artean honako azpimarratuko nituzke, berdintasunarena, alkohol kontsumoarena, ordutegiarena, txaranga eta ibilbidearena eta noski, musika bolumenari dagokiona. Izan ere azken urteetako arazo nagusienetarikoa bilakatu baita zaratena. Bukatzeko parte-hartzaileek ekarpen finkoa izango dutela gastuen arabera era erlatiboa honako printzipioak sustatzen badituzte, gizon emakumearen arteko parekidetasuna eta edo euskararen erabilerarena.”

... Aitzol Garzia Azurmendi (EHBILDU) “Ados gaude aurkeztutako ordenantzarenarekin eta eskertzekoa gu kontutan hartu izana ordenantza egiteko momentuan Hala ere, bilera irekia egin zenean konpartsekin bileraren parte-hartzea eskasa izan zen eta horrekin kezkatuta geratu ginen. Uste dugu neurriak hartu behar direla partaidetza sustatzeko”

.. Alkatea: “Aurreko Iñauterien ondoren egindako balorazio bileran baita hainbat herritar batzuek adierazi zuten kezka. Udal honek ere konpartitzen du zarata eta gehiegizko musika bolumenaren inguruan. Baita ere, Tolosako Iñauteriak azken urteotan hartutako norabideen inguruan, jaiak aldatu egiten dira, gizartea ere aldatzen delako. Baina Iñauteriak beti bereziak izan dira, umorea eta errespetua oinarri izan dutenak. Eta izaera hori mantendu beharrean gaude. Azken urteotan pausoak eman dira baina lanketa guzti hori Iñauterian parte hartzen dutenen artean egin nahi da. Zuk esan bezala ezinbestekoa delako. Zarata eta segurtasun inguruko txostena eskatuta dago, abenduan jasoko dugu eta emaitzekin eragileekin elkarlanean hartuko dira soinu arazoaren aurrean neurriak “

HERRITARREN BATZORDEKO 2019KO AZAROAREN 20KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

Kulturako udal Teknikariak, 2019ko irailaren 17an proposamena egin zuen, Tolosako udalerriko Inauterietako dirulaguntzen eta antolamendua arautuko duen ordenantza



TOLOSAKO
UDALA

berezia sortzeko.

Izan ere, Tolosako Inauteriak udalerraren ondare kulturala nabaria izateaz gain, parte hartzerako herrikoiaren isla nagusienetako da. Karrozei eta konpartsei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzea ezinbestekoa da eta horretarako ordenantza berezi hau proposatzen da, txosten teknikoan xedatzen den gisan.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- 1- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak berezi ditu lege berriak.
- 2- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- 3- udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritutako baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua m) atalak udalek, besteak beste, "kultura bultzatzeko ekintzak".

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 20. atalean, "kultur jarduerak " buruzko politikak sustatzea eta ordenatzea.

2.- Udalaren sustapen-neurriak eta diru laguntzak

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
2. Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua

Herri Administrazioen dirulaguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikulua,



TOLOSAKO
UDALA

dirulaguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartzearen beharra xedatzen du. Aipatu artikulua 3. atalak, oinarrien publizitatea arautzen du, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

3. *La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, como mínimo, los siguientes extremos:*

a) *Definición del objeto de la subvención.*

b) *Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta ley, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*

c) *Condiciones de solvencia y eficacia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta ley.*

d) *Procedimiento de concesión de la subvención.*

e) *Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.*

f) *Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.*

g) *Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.*

h) *Determinación, en su caso, de los libros y registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.*

i) *Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario o de la entidad colaboradora, en su caso, del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.*

j) *Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.*

k) *Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar los beneficiarios.*

l) *Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.*

m) *Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.*

n) *Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.*

Azkenik, Gardentasuna, Informazio Publikoa Eskuratzea eta Gobernu arautzen dituen abenduaren 19ko 9/2013 Legearen 8. artikulua Dirulaguntzen Lege Orokorren araudia aldatu du, informazio-esparrua zabaldu duelarik. Era honetan:



TOLOSAKO
UDALA

Artículo 8 Información económica, presupuestaria y estadística

1. Los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título deberán hacer pública, como mínimo, la información relativa a los actos de gestión administrativa con repercusión económica o presupuestaria que se indican a continuación:

- c)** Las subvenciones y ayudas públicas concedidas con indicación de su importe, objetivo o finalidad y beneficiarios.

Beraz, udalak argitaratu beharko ditu Gardentasunaren Atarian (*Gipuzkoa Irekian*) ordenantza honetan oinarrituta ematen duen dirulaguntzen zerrenda, beti ere onuradunen izaera pertsonaleko datuen erreserbari buruz Legerian araututakoa kontutan hartuz.

3.- Ordenantzaren izapidetzea

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, ondokoaren arabera:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezten.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

4.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, "Tolosan, irabazi-asmorik gabeko gazte elkarten edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru laguntzak emateko ordenantza bereziaren" aldaketen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Beraz, proposatzen da:

LEHENA.- Tolosan, Iñauterietako dirulaguntzen eta antolamenduaren ordenantza berezia onartzea.

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko



TOLOSAKO
UDALA

iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta daudela ulertuko da.

IRIZPENA

Herritarren Batzordea 2019ko azaroaren 20an bildu da eta proposamen hau Osoko Bilkuran onartzea erabaki du batzordekideen boto hauekin:

- | | |
|----------------------------------|--------------|
| • Nerea Letamendia | ALDEKO BOTOA |
| • Izarne Iglesias | ALDEKO BOTOA |
| • Aitzol Garzia | ALDEKO BOTOA |
| • Xabier Martinez | ALDEKO BOTOA |
| • Joseba Koldo Ormazabal | ALDEKO BOTOA |
| • Jose M ^a Villanueva | ALDEKO BOTOA |
| • Kristina Pelaez | ALDEKO BOTOA |

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du **hasierako onarpena ematea** Iñauterietako dirulaguntzen eta antolamenduaren ordenantza bereziari.

7. Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko sarera atxikitzea.

Parte-hartzeak:

... Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV): *“Sarea hau Gaztematika izena duen proiektua da, berez ez da haurrekin edo gazteekin zuzenean lantzeko proiektua baizik eta erakundeok sortzen dugun sarea da gazteen eta haurren horien sustapenera begira behar ditugun prestakuntzak edo gure arteko proiektuen ezagutza bultzatzeko. Helburua modu zabalean haurren eta gazteen sustatzeko ekimenak aurrera emateko proiektuak . Ikusten genuen Gipuzkoa Foru Aldundiak eta herriok genituen proiektuak era aislatu batean, eta nahiz eta batzuetan partekatu, ez zegoen estrukturarik. Proiektu honek honi erantzuten dio. Gaur egun dauzkagun*



TOLOSAKO
UDALA

erronka batzuei erantzutea zaila izango zen Tolosatik bakarrik aurrera eramatea. Beharra dago gazteen inguruan lege berri bat egiteko Euskadi mailan eta Gaztematikak tresnak jarri ditu udalen eskura. Baditugu, eta hemen egon dira gazte batzuk Tolosan sortutako proiektu batean, Haurren Hiria proiektua, altxor txiki bat, proiektu potente bat. Sare honek ematen dizkigu aukerak, gure esperientzia partekatzea beste udalekin eta haiengandik jasotzea eta baita Gipuzkoako Foru Aldunditik bideratuko diren diru-laguntzak eta formakuntzarako jarriko diren baliabideetan sartzeko.”

... Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU): *“Egia da gizartea asko aldatu dela azken urteotan, askoz ere indibidualistagoak bihurtu gara. Ahaztu egin zaigu umeen eta gazteen heziketa komunitatearen lana dela, horrelako ekimen batek erakunde eta komunitatea saretzea gizarte hobea egiteko balio duela. . Balio dezake erakundeetatik haratago joateko eta gizarte osoa inplikatzeko hemen izan ditugun haur horiek aipatu dituen eskubide guztiek heziketara integral bat izan dezaten. Ekimen horren horretarako balio badu ba ongi etorri.”*

HERRITARREN BATZORDEKO 2019KO AZAROAREN 20KO IRIZPENA.

Haur eta Gazteen Sustapenerako politikaren esparruan, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko lankidetzaz Sarea sortzen da, «Gaztematika» izenarekin.

Sare hori 12/2019 Foru Dekretuaren bidez ezartzen da eta sare horri atxikitzea da helburua.

Sarearen xede bakarra izango da haur eta gazteen sustapenerako politikak bultzatu eta indartzea, eta, bestalde, arlo horretan esperientziak eta jardunbide egokiak trukatu eta elkarrengandik ikastea, eta foru aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundearen arteko lankidetzaz eta elkarlana sendotzea.

Beraz, Tolosako Udalak sare horretan formalki parte hartzeko proposamena egin du gazte teknikariak 2019ko azaroaren 20an egindako txostenean.

Atxikimenduaren edukia:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sareak helburu hauek izango ditu:

a) Erakundeak elkartzeko sare edo gune bat antolatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuaren artean –bereziki foru gobernuaren eta tokiko gobernuaren artean–, haur eta gazteen sustapenerako politikak bultzatzeko eta horrela biztanleriako



sektore horien eta erakundeen arteko harremanak sendotzeko.

b) Haur eta gazteen sustapenaren arloan diharduten erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak, trukatzeko gune bat ezartzea, elkarrengandik ikasteko erakunde arteko komunitate bat eratuz eta arlo horretan erakundeen hobekuntza sustatuz.

c) Sarean dauden erakundeek laguntza eta lankidetzat teknikoko bitartekoak jartzea arauzko betebeharrak egoki, gauzatu eta bete ahal izateko, araudi eta ordenantzak onartzeko eta haur eta gazteen sustapenerako metodologiak, planak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.

d) Haur eta gazteen sustapenaren arloan politika egokienak zehazten laguntzea berdintasunezko ikuspegi batetik, gero Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek gara ditzaten.

e) Haur eta gazteen sustapenaren arloan kargudun publikoen gaitasun instituzionalak eta foru aldundiko nahiz tokiko erakundeetako langile eta teknikarien gaitasun profesionalak hobetzeko prestakuntza programak, foroak eta jardunaldiak sustatzea.

Helburu horien guztien zeharkako elementuak izango dira: hizkuntza berdintasuna, hizkuntza aniztasuna, euskararen erabilaren sustapena eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegia.

Sarearen esparruko jarduerak eta prestazioak hauek izango dira:

a) Elkarlanean aritzea haur eta gazteen sustapenaren arloan foru aldundiak bultzatu beharreko jarduera ildoak definitzeko, eta eremu horretan zer ekintza lehenetsi nahi diren zehaztea.

b) Gobernu maila desberdinek abian jarri ahal izango dituzten haur eta gazteen sustapenerako plan eta programa zehatzak bultzatzea.

c) Haur eta gazteen sustapena xede duten prestakuntza programak diseinatu eta sustatzea.

d) Sarearen parte diren erakunde, arduradun eta teknikariei zuzendutako haur eta gazteen sustapenaren arloko jardunaldi, topaketa, foro, mintegi edo lantegiak diseinatu, koordinatu eta gauzatzea.

e) Haur eta gazteen sustapenaren arloko jardunbide egokiak eta eredu arrakastatsuek identifikatu eta partekatzea, eta horien ezarpena sustatzea Sarearen parte diren erakundeetan.

f) Haur eta gazteen sustapenerako gida metodologikoak sortu eta baliatzea.

g) Hartzailleek zuzeneko zerbitzuak jaso ditzaten bultzatzea.

h) Beste Sare, arlo edo politika batzuekin harremanak izatea eta koordinatzea, haur, nerabe eta gazteek beren eskubideak baliatu ditzaten bultzatzeko eta haien autonomi edota emantzipazio prozesuan laguntzeko. Arreta berezia jarriko zaio berdintasunean aurrerapausoak emateari; haur, nerabe eta gazteengan berdintasunezko balioak sustatzeari; emakumezkoen ahalduntzeari; eta nerabe eta gazteengan indarkeria matxistaren prebentzioari.

i) Hizkuntza berdintasuna, hizkuntza aniztasuna eta euskararen erabilera sustatzea

Araubide juridikoa:



-Nazio Batuen Erakundeak 1989an onartutako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak -18 urtez azpiko pertsoneri aplikagarria, oro har jada hizpidera ekartzen du «haurren eskubidea atsedean hartzeko eta aisiarako, jolasteko eta haren adinari dagozkion jolas jardueretan aritzeko eta kultur bizitzan eta arteetan askatasunez parte hartzeko» (31. artikulua). Orobat jasotzen ditu «elkartzeko eta bilera baketsuak egiteko eskubidea» (15. artikulua), «iritzia askatasun osoz emateko eskubidea, haurrari dagozkion gai guztietan» (12. artikulua), eta, jakina, «gizarte libre batean haurra bizitza arduratsu baterako prestatzea» ahalbidetuko duen hezkuntzarako eskubidea (29. artikulua). Hitzarmen bat denez, estatu sinatzaileetako botere publikoak haren betearazpena bermatzera behartuta daude.

-Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak 24. artikuluan xedatzen duenez, «haurrek babes eskubidea eta ongizaterako beharrezko dituzten zainketak jasotzeko eskubidea dute. Askatasunez adierazi ahal izango dute beren iritzia. Beren iritzia kontuan hartuko da dagozkien gaietan, beren adinaren eta heldutasunaren arabera». Tratatua indarrean jarzea

-Oinarrizko Eskubideen Gutunak itunen balio juridiko bera du (Europar Batasunaren Tratatuak 6. artikulua).

-Gazteriaren arloko politikei dagokienez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 166. artikulua aurreikusten du «gazteen eta gizarte-hezkuntzetako eragileen arteko trukaketak gehitzeko moduak erraztea, eta gazteak Europako bizitza demokratikoan parte hartzera bultzatzea». Europar Batasunak 2001eko azaroan onartutako Gazteriaren Liburu Zuriak, 4.1.2 atalean zehazten duenean zein diren lankidetzako metodo irekia erabiltzeko lehentasunezko gaiak, haur eta gazteen sustapenaren arloan bete-betean sartzeko diren lau gai aipatzen ditu: partaidetza, informazioa, boluntariora jarduerak eta gazteak hobetu ulertu eta ezagutzea. Europar Batasunaren gazteriarako 2010-2018 estrategiak aukera gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna du jomuga –Gazte Bermea programak oinarri hartuta, adibidez–, eta pertsona gazteen herritartasun aktiboa, gizarte integrazioa eta elkartasuna –Erasmus programaren boluntariora jardueren bitartez, esaterako–.

-Espainiako konstituzio esparruaren barruan, Autonomia Estatutuak 10. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusibo gisa aipatzen ditu haur eta gazte politikaren arloan eta aisia eta denbora librearena. Esparru horretan, 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, haur, nerabe eta gazteen oinarrizko eskubideen artean jasotzen ditu «parte hartzeko, elkartzeko eta batzartzeko eskubidea» (14. artikulua), «adierazpen askatasunerako eskubidea» (15. artikulua), «esateko dutena entzun dakien eskubidea» (16. artikulua) eta «nork bere eskubideak defendatzeko eskubidea» (17. artikulua).

Bestalde, «aisialdi aktiborako eskubidea» ere aipatzen du (V. kapitulua), haur eta nerabeen jolas jarduerak «haien garapenerako funtsezkotzat» joz (34.1. artikulua). Lege horrek berak, gizarterako eskubideari buruzko VIII. Kapituluaren, administrazio publikoak



TOLOSAKO
UDALA

premiatzen ditu, besteak beste, «hurrei eta nerabeei informazioa emateko zerbitzuak» (42. artikulua) eta «helduarora igarotzeko programak» (44. artikulua) sor ditzaten.

Bestalde, lege horren 26. artikuluan adierazten denez, «hurrek eta nerabeei eskubidea dute, eskolan ematen zaien irakaskuntzaren osagarri gisa, kultura-prestakuntza integrala jasotzeko, beren gaitasun intelektual eta artistikoa garatzeko nahiz trebetasun fisikoak eta

eskulanetarakoak areagotzeko» Euskal Autonomia Erkidegoak gazteriari buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere, ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jardueraren arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa.

Arautze eta partaidetza jardueraren hori lagungarria izan da foru dekretu honen jarduketaren esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzko 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa. -Gipuzkoako Foru Aldundiak 12/2019 Foru Dekretuak, apirilaren 16koak onartzen du haur eta gazteen arloko eta aisia eta denbora librearen arloko politikak gauzatzeko duen eskumena baliatuz, hala baitagokio, nahiz eta Euskadiko erakunde erkideek zuzenean jardun ahal izan, 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru erakundearen arteko harremanei buruzkoak, 7.c.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Organu eskuduna:

Plenoa. Horrela dio Toki Erakundeko Oinarriak xedatzen dituen 7/85 Legeak, apirilaren 2koak, bere 47.2.h.artikuluan:

“Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias:

.....

h) Transferencia de funciones o actividades a otras Administraciones públicas, así como la aceptación de las delegaciones o encomiendas de gestión realizadas por otras administraciones, salvo que por ley se impongan obligatoriamente.”

Beraz, gehiengo absolutoa behar da 12/2019 Foru Dekretuari atxikitzeko.

Hau kontutan izanik, ondorengo Proposamena helarazten diot Udal Plenoari (gehiengo absolutoz onar dezan):

Lehena.-Atxikipena ematea ondorengo 12/2019 Foru Dekretuari: (apirilaren 16koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarea-Gaztematika- sortzeari buruzkoa).

Bigarrena.-Joseba Ormazabal, Gazteriako Zinegotzi Delegatua izendatzea Tolosako ordezkari Foruan parte hartzeko.



TOLOSAKO
UDALA

DIKTAMENA

Herritarren Batzordea 2019ko azaroaren 20an bildu da eta proposamen hau Osoko Bilkuran onartzea erabaki du batzordekideen boto hauekin:

- Nerea Letamendia ALDEKO BOTOA
- Izarne Iglesias ALDEKO BOTOA
- Aitzol Garzia ALDEKO BOTOA
- Xabier Martinez ALDEKO BOTOA
- Joseba Koldo Ormazabal ALDEKO BOTOA
- Jose M^a VillanuevaALDEKO BOTOA
- Kristina Pelaez ALDEKO BOTOA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko sarera atxikitzea.

8. Hasierako onarpena ematea Tolosako Landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua emateko auzolana arautzen duen udal ordenantzari.

Parte-hartzeak:

... Patxi Amantegi Zubiria EAJ/PNV): *“Aspaldidanik auzolanean egiten den lan bat arautzea da honen helburua. Tolosako auzoak erdigunetik urrun daude, Bedaio hamabost kilometroetara dago, bi herri pasa ondore. Uganera joateko ere bai, Aldabera, eta Urkizura ere ba gauza bera, gertuena Monteskuie izanik. Eta eguraldi txarrekin oraindik urrunago jartzen dira, elurra, izotzarekin zaildu egiten zaie bizimodua auzotarrei.. Betidanik auzolan handia egin da udalarekin batera, herritarrek izan dira garbitu dituztenak bideak eta pixkanaka Udalaren laguntzarekin baliabide gehiago jarritz. Halako batean Udalak ikusi du egokia dela egiten duten lan hori arautu eta jarri bakoitzak dituen betebeharrak eta eskubideak eta hori izango da ordenantza berri honetan jasoko ditugunak”.*

LURRALDE BATZORDEKO 2019KO AZAROAREN 20KO IRIZPENA.



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO LANDA AUZOETAKO BASERRI BIDEETAN ELURRA KENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO AUZOLANA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

AZTERKETA JURIDIKOA

Ordenantza honen helburua Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko auzolana arautzea da:

- 1. art.an ordenantzaren xedea deskribatzen da, euskal kulturaren errotutako auzolan sistema gaurkotuz.
- 2. art.an ordenantzak arautzen dituen auzolan lanak zein diren zehazten da.
- 3. art.an auzolanean parte hartzeko baldintza eta izapideak zehazten dira.
- 4. art.an lanak nola garatuko diren arautzen da.
- 5. art.an lan horiek egiteagatik ordaindu daitezkeen kantitate eta kontzeptuak arautzen dira.
- 6. art.an arau haustekak eta dagokion zehapenak zehazten dira.
- 7. art.an auzolanaren izaera berezia finkatzen da, adieraziz ez dela inolako lan harremanek ezartzen erabiltzaile eta Tolosako Udalaren artean.
- 8. art.an auzolanean parte hartzearen ondorioz sor daitezkeen kalte ordainen erregimena zehazten da.
- 9. art.an auzokako banaketa geografikoa arautzen da.

1.- Eskumenari dagokionez: Udal ordenantzak aprobatzeko prozedura Prozedura Administratibo Erkidea arautzen duen 39/2015 Legearen 127 eta hurrengo artikuluetan arautzen da. 128.1 art.aren arabera, ahalmen arautzailea Toki Erakundearen 7/1985 Oinarri Legearen arabera eskumenduna den toki organoari dagokio. 7/1985 Legearen 22.d eta 22-f art.en arabera, ordenantzak aprobatzeko eskumena Udaltzari dagokio, bai eta zerbitzu publikoen kudeaketa formak onartzea ere.

Azkenik, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen 2568/1986 ED.aren 50 artikulua ere eskumena Udaltzari dela adierazten du.

2.- Izapidetzeari dagokionez: Toki Araubidearen 7/1985 Oinarri Legearen 49.a art.-ak hasierako onarpenaren eskumena Udaltzari esleitzen dio, eta 49.c art.-ak behin betiko onarpenarena.

Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio publikoen prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua behartzen du araudi proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publikoa egitera. Kasu honetan, Udal iragarki taulan irailaren 26tik urriaren 16-a arte egon da. Epe honetan ez da iradokizunik jaso.



TOLOSAKO
UDALA

Hasierako onarpenaren ostean, 30 eguneko entzualdi publikoa zabalduko da, 7/1985 Legearen 49.b art.-aren arabera.

Toki Araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu batagina onartzen duen 781/1986 EDLeg.-aren 56 art.-ak 7/1985 Legearen 49 artikulura igorpena egiten du toki-ordenantzen onarpen prozedura finkatzeko. 7/1985 Legearen 70.2 art.-aren arabera, ordenantzak probintziako aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira indarrean jarri ahal izateko.

Toki Araubidearen 7/1985 Oinarri Legearen 49 artikulua ezartzen du toki-ordenantzen onarpenerako jarraitu beharreko prozedura. Udalbatzak hasierako onarpena emango du (49.a art.-a), ondoren 30 eguneko entzualdi publikoko fasea zabalduko da (49.b art.-a) eta azkenik ebazpenarekin aurkeztutako alegazio guztiak erantzungo dira, dagokion epean (49.c art.-a).

Toki Erakundeen antolaketa, funtzionamendua, erregimen juridikoa arautzen duen 2568/1986 ED.-aren 123 art.-aren arabera informazio batzordeak jorratuko dituzte Udalbatzak ebaztekoak diren gaiak. Honenbestez, ordenantza proposamen hau Hirigintza informazio Batzordeak jorratuko du, Udalbatzara igorri aurretik.

3.- Edukiari dagokionez: Prozedura Administratibo Erkidearen 39/2015 Legearen 127 eta hurrengo artikuluetan arautzen da Administrazio publikoen ahalmen arautzailea. 129.1 art.-aren arabera, ahalmen arautzailea baliatzean, administrazio publikoek premia, efikazia, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientzia printzipioen azalpena eta justifikazioa egingo da zioen azalpenean, eta betetzen da hori ordenantza honetan.

IRIZPENA

Lehena.- Hasierako izaerarekin onartzea Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzuaren Ordenantza, Eranskin gisa aurkeztu den testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea informazio publikoko izapidean jartzea 30 lanegunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita; horietan espedientea udaletxeko Idazkaritzan egongo da, interesatuek aztertzeko aukera izan dezaten. Halaber, hasierako izaerarekin onartutako testuari erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera izango dute.

Hirugarrena.- Erabakitako ebazpena, eta ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta Tolosako web gunean ARGITARATZEA.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal



TOLOSAKO
UDALA

Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak **ahoko batez hasierako onarpena eman dio** Tolosako Landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua emateko auzolana arautzen duen udal ordenantzari.

9. 1867/2019 eta 1921/2019 dekretuen berri ematea.

Alkateak 2019ko azaroaren 11n emandako 1867 Dekretuaren eta azaroaren 19an emandako 1921 Dekretuaren berri eman die bertaratutakoei.

2019/1867 Dekretua. Hitzez hitz honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

2019/1867

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak, betez 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.s) artikuluan xedaturikoa, eta

IKUSIRIK

Batetik, 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 38. artikuluan, ondoko hau xedatzen duela: "Dentro de los treinta días siguientes al de la sesión constitutiva, el Alcalde convocará la sesión o sesiones extraordinarias del Pleno de la Corporación que sean precisas, a fin de resolver sobre los siguientes puntos:....."c) Nombramientos de representantes de la Corporación en órganos colegiados, que sean de la competencia del Pleno".

Bestetik, udal antolakuntza xedatuko duen Udalbatzaren Osoko Bilkurak Tolosako Udalak beste erakundeetan dituen ordezkariak ebatzi behar dituela, beti ere bere eskumenari dagozkion izendapenak badira, eta erakundeetako eratze- edo antolatze-tituluetan Tolosako Udalarik eskumen generikoa esleitzen bazaio, Alkatezari dagokiola ahalmen hori, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.s) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipaturiko artikulua alkatearen ahalmenak arautzen ditu, eta horien artean: s) Las demás que expresamente le atribuyan la leyes y aquellas que la legislación del Estado o de las comunidades autónomas asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales. Ikusirik, bestalde, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo administratiboen eskumena utziezina dela.

Azkenik, erakunde ezberdinetako Estatutu eta Barne Araudiak,



TOLOSAKO
UDALA

EBATZI DU:

LEHENA: Tolosako Udalak parte hartzen duen organo kolegiatu hauetan ondorengo ordezkariak izendatzea:

ERAKUNDEA	ORDEZKARIA
EUSKAL FONDOA	Titularra: Olatz Peon Ormazabal Ordezkoa: Nerea Letamendia Beloso
TOLOSALDEA INSTITUTUA	Joseba Ormazabal Lopez

ERAKUNDEA	ORDEZKARIA
HIZKUNTZA ESKOLA	Joseba Ormazabal Lopez
CEPA	Joseba Ormazabal Lopez
ORIXE INSTITUTUA	Joseba Ormazabal Lopez

BIGARRENA.- Xedatzea izendatuek onartuko dituztela esleitutako karguak eta aitortuko dutela, batetik, betetzen dituztela kasuan kasuko baldintzak, eta bestetik, ez daudela sartuta indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoietan. Hala ere, izendapen horiek jakinarazi eta hogeita lau orduko epean interesatuak ez badu ezer adierazten, onartutzat emango dira egindako izendapenak eta atal honetan adierazitako baldintzen onespena.

HIRUGARRENA.- Hartutako ebazpenak erakunde eta zinegotzi interesatuei jakinaraztea.

LAUGARRENA.- Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea hurrengo batzarrean, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta bere web orrian.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Agindu eta izenpetzen duena Alkate-Udalburuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2019ko azaroaren 11n .

ALKATE-UDALBURUAK

**Nire aurrean
IDAZKARIAK**

2019/1921 Dekretua. Hitzez hitz honela dio:



TOLOSAKO
UDALA

ALKATETZA DEKRETUA

2019/1921

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosa Udaleko Alkate-Lehendakariak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.a) artikuluan, eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 125.a) artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta ondoko hauek

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako udalbatza plenoak, 2019ko uztailaren 19an egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, erabaki zuela Udaleko Batzorde Informatibo iraunkorrak eta Kontuen Batzorde Berezia sortzea eta Batzorde bakoitzean udal talde bakoitzari zegokion ordezkari eta kideen kopurua zehaztea.

Ondoren, 2019ko irailaren 18an egindako bilkuran, Lurraldeko Batzorde Informatiboa eratu zen, eta bere Lehendakaria aukeratu zuen, Begoña Tolosa Mendia A. zinegotzia hain zuzen.

Bestaldetik, Alkatetza honek, 2019/1223 Dekretuan, udal antolaketa-egitura barruan, Koordinazio Talde bat sortzea erabaki zuela, hiru Lan Esparru bereiziz. Horretaz gain, antolatutako Lan Esparru bakoitzeko (Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldea) lan-talde bat sortzea ebatzi zuela, erantzukizun politikoko eta teknikoko koordinatzaileak izendatuz. Aipatu Dekretuan, Begoña Tolosa Mendia A. izendatu zen Lurraldeko Lan Esparruko koordinatzaile politiko izan zedin.

BIGARRENA.- 2019ko azaroaren 12an aurkezturiko idazkian (9560 sarrera-erregistroko zenbakiduna), EAJ/PNV udal taldearen bozeramaileak, Joseba Ormazabal Lopez zinegotziak, ondoko hau jakinarazi dio udal honi: Xabier Balerdi Tolosa J. (Lurraldeko) Batzordeko ordezkari gisa izendatzea eta Begoña Tolosa Mendia A. Ordezkoa izendatzea. Beraz, izendapen honen berri eman behar zaie Batzordekideei.

HIRUGARRENA.- Halaber, udal gobernu taldekideen arteko lanak berrantolatzeko beharra ikusirik, Lurraldeko Batzorde Informatiboko Lehendakari eta Lurraldeko Lan Esparruko koordinatzailea aldatzea egokitzat jotzen du Alkatetza honek.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 125.a) artikuluan xedatzen duenaren arabera, Alkate-Lehendakaria dela Batzorde Informatibo guztien berezko Lehendakaria. Hala ere, kargu hori eskuorde dezakeela beste zinegotziarengan, baino horretarako beharrezkoa da Batzorde Informatiboak dagokion hautaketa gauzatzea



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, ondoko hau

ERABAKI DUT

LEHENA.- Tolosako Lurraldeko Batzorde Informatiboan EAJ/PNV udal taldeak jakinarazitako aldaketa beste batzordekideei jakinaraztea, hau da, Xabier Balerdi Tolosa J. (Lurraldeko) Batzordeko ordezkari gisa izendatzea eta Begoña Tolosa Mendia A. Ordezkoa izendatzea.

BIGARRENA.- Tolosako udaleko Lurraldeko Batzorde Informatiboari proposatzea ondoko Lehendakariaren izendapena onartzea, Alkate-Lehendakariaren delegazioz arituko dena ordezeko gisa:

- **LURRALDEKO BATZORDE IRAUNKORRA:** Egoitz Sorozabal Iturain J.

HIRUGARRENA.- Lehendakaritzak eskuordetu zaion zinegotzia absente, kanpoan edo beste eragozpenen bat izanez gero, Alkateak bereganatuko ditu zuzen-zuzenean eskuordeturiko eskumenak organo kolegiadun guztien lehendakaria den heinean, horretarako ez delarik beharrezkoa izango ebazpen berri bat egitea.

LAUGARRENA.- Egoitz Sorozabal Iturain J. izendatzea Lurraldeko Lan Esparruko koordinatzaile politiko gisa.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdun guztiei, Idazkari Orokorrari, eta eragindako sail eta azpisailei (Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa).

BOSGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Lurraldeko Batzorde Informatiboari eta Udalbatzari egingo duten hurrengo bilkuratan, eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko web orrian.

SEIGARRENA.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

Erabaki honek amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Agindu eta izenpetzen duena Alkate-Udalburuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2019ko azaroaren 19an.

ALKATEAK

Nire aurrean



IDAZKARIAK

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

10. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2019ko urriaren 1etik 31ra (2019/1571-2019/1778).

Alkatetzak 2019ko urriaren 1etik 31ra (2019/1.571-2019/1.778) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

11. 2019ko Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpen instituzionala.

Parte-hartzeak:

... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): *“Ez dut gauza berririk esan behar baina laugarren parrafoan, - Bide luzea egina du euskarak-, orain dela berrogei urteko egoerarekin konparaketa eginez gero gauzak erabat aldatu egin dira Garai hartako herritarrekin osasutako erakundeekin, gau-eskola, ikastolak, euskal ikastola, ia ia publikoki existitzen ez zen hizkuntza, zerotik hasi prozeduran. Garai hartan oso garrantzitsua izan zen herritarrak sortutako mugimendu kulturala. Alde honetatik egingo dugun lana beti gutxi izango da, gizartea oso konplexua da, aldaketa sozialak izugarriak izaten ari dira azken urteotan, eta seguruenik hurrengo urteetan handiagoak izango dira, izan ere etorkinak ugaritu izango dira gure artean. Ni euskaldun berria naiz eta euskara ikasi eta gainditzea ez da hain errexa. Esfortzua egin beharko dugu etorriko diren etorkinekin. Maila ezberdinetan, alde batetik, euskal hiztunek garrantzia handia izango dugu arlo honetan, erakunde publikoek, politikoek logikoki. Hemen aipatzen dira arlo asko, sozioekonomia, enpresa mundutan eta lan mundutan, oraindik euskaaren presentzia indartzen ari dira baina logikoki esfortzu handia egin behar da arlo askotan. Guztiz ados gaude, dokumentu honekin eta ildo honetatik jarraitu behar dugu, dudarik gabe.”*

... Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU): *“Guztion dakigun bezala Euskararen Eguna abenduaren 3an ospatzen dugu Frantzisko Xabierren egunean. Historia pixka bat eginez, esan, Frantzisko Xabier 1552ko abenduaren 3an hil zela eta hil aurreko azken hitzak bere ama hizkuntzan izan zirela, euskaraz. 1949an, berriz, Eusko ikaskuntza ezarri zuen eguna euskararen Nazioarteko egun gisa. Eta 1995ean, berri Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak bat eginik Euskararen Nazioarteko eguna instituzionalizatu zuten. Harrezkero euskararen erabilera eta euskara bera sustatzeko asmoz hainbat elkartek, erakunde publikoak eta herritarrek milaka ekitaldi antolatu*



TOLOSAKO
UDALA

dituzte. Adibidez bezala, hor daukagu Euskaraldia, hamaika egunetan izugarrizko ilusioa eta gogoarekin aurrera eman dugun ekimena. Jakin badaki euskararen erabileraren kopurua asko handitu egin dela eta ezagutza gehien bata Ezin ahaztu 60 hamarkadak ikastolek horretarako egin zuten lana. Aspaldian urrats asko eman dira euskararen normalkuntza lortzeko Herri asko ditugu bere funtzioak normaltasun euskaraz egiteko gaitasunak dituztenak, baina normalkuntza hori sendotu eta zabaldu egin behar dugu. Oraindik asko daukagu ikasteko. Herri asko ditugu euskaraz funtzionatzeko zailtasunak dituztenak, adibide garbia, Nafarroan dugun egoera larri hau. Euskaraz bizitzeko eskubide bermatu behar dugu, herri guztietan, kirol arloan, gazteen aisialdi zerbitzuetan, familien eremuetan, migratzaileentzat euskara ikasteko aukerak handituz, enpresetan, euskara lanean, kalean, helduekin, haurrekin, gazteekin, pozik, haserre, eman daitezkeen egoera guztietan euskara erabili behar dugu. Lortuko dugula ziur gaude baina horretarako lanean jarraitu behar dugu, benetako Euskal Herria euskalduna lortu nahi badugu.”

... Xabier Balerdi Tolosa /EAJ-PNV): *“Bukatzeko gonbita egin nahi nizueke, alde batetik herritarrei eta baita udal partaide garen guztioi. Jakin dezazue Galtzaundik abenduaren 3an, hain zuzen, Euskararen eguna Antzerki-bertsu ikuskizun inprobisatua bat antolatu dute zerkausian, arratsaldeko 6etan eta eskertzen du jendearen parte- hartzea hitzekin jolastu dutelako biak: Ideia interesgarria da eta parte- hartzea animatu dizuet. Euskararen eguna aprobetxatuz, Abenduaren 3an, 13:00etan, Udaleko langileei zuzenduta, argitaratu berria de Euskararen Udal Legea garatzen duen Dekretuari buruzko lan saioa burutuko dela Pleno Aretoan. Tokiko administrazioetako jardunbidean eragina izango duena. Langileei eta zinegotzientzat den aurkezpen hau Euskara departamentuko arduradunak egingo du eta ondoren mokadutxo baterako gonbita dago.”*

Xabier Balerdi Tolosa Euskara zinegotzi delegatuak mozioa irakurri du.

Mozioaren testua honako hau da:

2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Bide berriak, modu berriak

Ongi etorri etorkizunera!

Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.

Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.

Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?



Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleaginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.

Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.

Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.

Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.

Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, estrategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.

Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktiko bihurtzeko bidean jarri zen.

Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.

Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.

Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.

Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.

Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.



TOLOSAKO
UDALA

Azken batean, aldekotasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.

Bertan du euskarak etorkizuna.

Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.

Ongi etorri etorkizunera!

ERABAKIA

Tolosako Udalak, Tolosako herritarren ordezkari moduan, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egiten du eta Eusko Jaurlaritzak, hiru Aldundiek eta hainbat udalek adostutako adierazpen instituzionalarekin bat egiten du.

Aurtengo adierazpena estu lotuta dago Euskaraldia ekimenarekin; hurrengo urtekoak erakundeekin zerikusi nabarmena izango duelako, ez bakarrik herritarrekin.

IRIZPENA

Herritarren Batzordea 2019ko azaroaren 20an bildu da eta proposamen hau Osoko Bilkuran onartzea erabaki du batzordekideen boto hauekin:

- *Nerea Letamendia* ALDEKO BOTOA
- *Izarne Iglesias* ALDEKO BOTOA
- *Aitzol Garzia* ALDEKO BOTOA
- *Xabier Martinez* ALDEKO BOTOA
- *Joseba Koldo Ormazabal* ALDEKO BOTOA
- *Jose M^a Villanueva* ALDEKO BOTOA
- *Kristina Pelaez* ALDEKO BOTOA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2019ko Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpen instituzionala.

12.Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna.

Parte-hartzeak:



- ... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): “Azpimarratu nahi dut zazpigarren puntuan aipatzen dena *Mugimendu Feministari ezker izan dela* arlo honetan eman diren pausoak inportanteak. Euskararen munduarekin komentatu den bezala, hemen ere, gauza bera gertatzen da, asko eta asko dago egiteko, hori da hemen jorratzen diren zazpi puntu horiei eustea eta martxan jartzea. Berriro ere eskerrak *Mugimendu Feministari*.”
- ... Olatz Artola Apeztegia (EHBILDU): “ *Gu bat gatoz mozioak dionarekin eta berretsi nahi dugu hitzez hitz hor esandakoa. Eskertzen dugu gainera bi aldeen ahotsak aintzat hartzea eta elkarrekin egin den mozio hau elkarrekin ere irakurtzea. Baina badira bi gai non azpimarratu nahi duguna. Batetik, Emakumearen Etxea, zinez eskertzen dugu proposamena aintzat hartu eta mozioan guretzat giltzarri eta eskualdean zentralitatea hartuko duen Emakumearen etxea txertatzea. Etxea heldu leku izango da askoentzat, beldurrak indarrak kezka argudio eta ezjakintasunak ezagutza bilatuko duten aterpea. Guretzat garrantzitsua da denboran kokatzea etxearen proiektua eta 220 jartzea epe muga moduan. . Horretarako konpromiso irmoa hartu behar dugu proiektua denboran luzatu ez dadin eta diluitu ez dadin. Hori gure esku eta zuen esku ere badago. Bestetik, esan, egun horren haria antolatutako ekimenen aurkezpena egin zela, Udalak deituta eta guk ez genuela aurkezpena joateko gonbiterik jaso, ezta egitaraua zehazteko garaia elkarrekin lan egiteko ere. Dena den, uste dugu horrelako ekimen guztietan bidelagun eta ipar-orratz izan behar ditugula Tolosaldeko Asanbladakoak . Beraiek dira teknikariekin batera feminismoan aritu eta adituak eta feminismoaren teoria gure herrira ekarri eta praktikan jartzen dutenak. Horregatik, gure ustetan, ez dago gure herriko argazki feminista ateratzeko argazkilari hoberik. Hortaz, horrelako ekimenak antolatzerakoan beraiekin aritu behar dugu hasiera hasieratik, kolektiboan, feminismoak horren barneratuta daukan moduan. Mila esker*
- ... Alkatea: “*Uste dut inportantea dela, naiz eta urtero errepikatu, horrelako egun batean erantzukizunezko mezu bateratua azaltzea erakunde guztiak eta gizarte mugimenduak baita ere zalantza izpirik gabe. Bistako den hori urtero errepikatu behar izanak ez duelako badirudi mezua barneratzeko aukera ematen eta horregatik, behin eta berriz, errepikatu behar izaten dugu. Errepikatu emakumeenganako indarkeria egiturazko arazo bat dela, horregatik herritarren jarrera aktiboa eskatzen dugu, pentsamoldeak, jokabideak eta jarrerak oinarritik aldatzeko, indarkeria eta desberdintasun egoerak salatu eta gainditzeko. Udaletik berdintasun politika eraginkorrek sustatzera bideratzen ditugu gure indar guztiak, hezkuntzan eraginez, gazteak berdintasunean eta errespetuan hezi eta hazi daitezen. Emakumeak ahalduz Jabetza eskolan eta eraikitzeari ekin diogun Emakumearen Etxearen bitartez. Eta biktima diren emakumeei gure babesa eta laguntza oso emanez eta ziurtatuz horretarako martxan jarriak ditugun biktimak artatzeko protokoloaren bitartez. Horiek berrikusi eta egokitu. Indarkeria sexistak formak ezberdinak hartzen ditu eta gure egunerokotasunean oso presente dugun indarkeri mota bat, horregatik da garrantzitsua gizartearen eraldaketa bultzatzea. Baita ere aipatu nahi ditut aurtengoan azaroaren 22tik 25era egindako ekimenak, gehienbat eskerrak emateko, bai Flashmobearen parte hartutako pertsona guztiei. Milari, bereziki, eta bere taldeari. Aipatu nahi ditut baita ere Trianguluko oholtza gainean flashmobearen aurkezten egon ziren bi neskak mezu oso borobila gauzatu zutela. Aipatu, baita ere, hankaz gora margotu dezagun mundua ekimenean parte hartu zuten gazteak, lagun izan zutela*



TOLOSAKO
UDALA

Kattalin eta Iñigo. Uste dut aipatzekoa dela baita ere, pelusa kontzientziazio kanpaina, emakumearen sexualitate lantzeko proiektua, non erakutsi ziguten gizona nagusia de gizarte egituretan nola, nola eragina izan dezaketen baita ere emakumearen espazio intimoetan ere. Aipatu nahi ditut baita ere, jatorri nigeriarra eta jatorri euskaldunen artean bi emakume taldeak egin zuten ekimena eta egindako kontzentrazio guztiak, besteak beste. Herritarrak ahaldunduz eta sentsibilizatuz, hezkuntzan eta gazteen artean eskua hartuz, parekidetasuna eta kontziliazioa sustatzeko neurriak hartuz, horrek ahalbideratuko duelako berdintasuna gure bizitzako esparru guztietan, emakumeok indarkeria sexistarik gabe bizitzeko eskubide osoa dugulako.”

Alkateak lehenik eta Olatz Artola Apeztegia EHBilduko zinegotziak jarraian mozioa irakurri dute.

Mozioaren testua honako hau da:

AZAROAREN 25a, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

MOZIOA

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, Tolosako Udalak berresten du honelako indarkeria egiturazkoa dela, eta berresten du, era berean, konpromiso zehatz batzuk hartzeko ardura, udalerrria indarkeria matxistatik gabeko gune gisa eraikitzeko.

Indarkeria matxista tresna bat da, genero desberdintasunak eta ordena sinbolikoa kontrolatzeko eta mantentzeko. Errealitate konplexua da, gizarte-aldaketetara eta eraldaketetara egokitzen dena, eta mota eta forma desberdinak hartzen dituen, zeinak ondo aztertu behar diren, haiei heldu eta iraultzeko.

Gainera, komunikabideek, publizitateak, telebistak, hainbat esparrutan emakume gutxi agertzeak edo agertzeak baina genero-estereotipoak edo rolak sendotzeko, lagundu egiten dute indarkeria honen adierazpide asko ikusezin izaten eta sozialki normalizatuak izaten. Horrek guztiak, aldi berean, legitimatu eta aukera ematen du indarkeria matxistaren beste adierazpide intentsuagoak eta ankerragoak sortzeko. Ezin dugu ahaztu aurten 3 emakume hil dituztela Euskal Herrian.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek egiarako eskubidea dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen kontaketa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta



pairatutako indarkeriaren eraginak sozialki aitortzea. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartzeko.

*Tokiko gobernuek geure gain hartzen dugu biktimei arreta eskaintzeko eta herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egiteko aitortua dugun erantzukizuna eta eskumena, gure herrietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak izanik, bide hori gaian jantzita dauden teknikoekin eta herriko emakume*¹ taldeekin batera egin behar dugu. Azken horiek dira bertako errealitatea gertutik ezagutzen dutenak eta beren militantzia denbora horretara dedikatzen dutenak. Hortaz, eskuz esku aritu beharra daukagu Tolosan eragiteko.*

Horregatik, Tolosako Udalbatzak bere jarrera berresten du, emakumeei bermatzeko indarkeria matxistatik gabe bizitzeko duten eskubidea, eta, horren haritik, konpromiso zehatz hauek hartzen ditu:

- 1.- Arreta-prozesu guztiaren erdigunean jartzea indarkeria matxistak erasandako emakumeen erreparazio-eskubidearen aitortza, eta haiei entzutea eta beren beharrak eta eskaerak artatzea, zainduz, era berean, prozesuak azkarrak izango direla eta bermatuko dela indarkeria matxista ez dela berriro gertatuko.*
- 2.-Udal Protokoloaren ebaluazioa egitea eta, beharrezkoa bada, baliabideak, zerbitzuak eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko prozedurak sortzea eta/edo egokitzea, eta indarkeria jasaten duten emakumeei eta beren familiei arreta onena eta babesik handiena ematea, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioak ikuspegi nagusi bezala harturik.*
- 3.- Jarraitzea Jabetze-Eskolako tailerren eta jardueren eskaintza handitzen eta hobetzen Tolosaldeko emakumeentzat martxan jarriko den etxean.*
- 4.- Emakumeen elkarte eta kolektiboen sorrera erraztea eta sustatzea, helburu izanik sendotzea ahalduntze-prozesu banakakoak eta kolektiboak, eskainita, hartarako, trukerako eta autolaguntzarako espazioak, eta ekintza kolektiboa bultzatuta, indarkeria matxistaren salaketa publikoa egiteko.*
- 5.- Emakumeen Etxea erreferentziazko espazio bat izango da eta bertan lekua izango dute, besteak beste, indarkeria matxista jasan eta jasaten duten emakumeek. Emakumeen etxea zabaltzeak erreparazio eskubiderako atea zabalduko dizkie eskualdeko emakumeei. Bertan garatuko dira udalek eskaintzen dituzten zerbitzu horiek eta indarkeria hau erraizetik erauztea landuko duten beste hainbat ekimen.*
- 6.-Ikastetxeetako hezkuntza-komunitateari begirako Hezkidetza proiektua indartzen jarraitzea, ondorengo gaiak sustatzen baitira: berdintasunean oinarritutako sexualitatea; nesken ahalduntzea eta mutilen zeregina berdintasuneko harremanen alde, era guztietako erasoak atzemateko eta prebenitzeko.*

1 Emakumea* kategoria politiko gisa ulertzea proposatzen da: genero-identitatean oinarritutako izendapena eta ez gorputzaren ezaugarri fisikoetan oinarritutakoa.



TOLOSAKO
UDALA

7.- Aitortzea Mugimendu Feministari borroka honetan aitzindari izan izana eta egin duen ibilbidea; izan ere, lortu du indarkeria matxista esparru publikora eta politikora eramatea, zertarako-eta, batetik, lankidetzan eta lanean jarduteko adituekin eta indarkeria matxistaren biktimen eta indarkeria horretatik bizirik irten diren emakumeen elkarteekin, eta, bestetik, erantzun irmoagoa emateko gizarte-gaitz honi.

Azkenik, herritarrei dei egiten die modu aktiboan parte har dezaten, azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna izeneko mozioa.

13. Galderak eta eskaerak.

Partehartzeak:

... Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU): *“Bolibiako estatu kolpea salatzeke adierazpen bateratua ekartzeko akordioa lortzerik izan ez dugunez, gai honen aurrean gure jarrera publikoki agertu nahi dugu. Hasteko azpimarratu nahi dugu Evo Moralesek presidente kargua hartu zuenetik 2006an, Bolibiak izan duen garapena arlo ekonomiko zein sozialean izugarria izan dela. Bere gobernuak izandako lorpenetatik batzuk aipatzearen, besteak beste, plurinazionaltasuna izaera aitortu zaio Bolibiari. Munduko Osasun erakundearen arabera, osasungintzara bideratutako aurrekontuak % 173 igo ziren 2007-2014 urte epean. Barne produktu gordina % 327 hazi da azken hamar urteetan eta Nazioarteko Diru Funtzak egindako azken ikuspegi ekonomikoaren txostenean Bolibia hazkunde ekonomikoa handiena izan duen ekonomia izan zen Latinoamerikan. Munduko bankuaren arabera, 2002an, Bolibiako biztanleagoaren %62 pobrezia mugaren azpitik bizi zen eta 2018rako berriz zifra % 35era murriztu zen. Esan bezala, hauek Moralesen gobernuaren lorpen batzuk baino ez dira. Hau esan da, jakitun gara baita ere 2016an Evo Morales hirugarren aldiz presidente izendatzeko egindako erreferenduma galdu zuela eta ondoren Bolibiako epaitegi konstituzionalak hirugarren aldiz aurkezteko bideari aurrera eman ziola, oso eztabaidatu izan zen erabaki batean. Azken hauteskudearen ostean, Evo Morales*



auditoria lotesle bat adostu zuen Amerikako Estatu Erakundearekin eta, azken honek, bigarren itzuli bat egiteko gomendioa egin zuen. Azpimarratzekoa da, Ameriketako Estatu Erakundeak ez zuela Moralesen garaipena zalantzan jartzen, zalantzan jartzen zuen % 10eko aldearekin irabazi oteko zuen. Horren aurrean, Evo Moralesek hauteskundeak errepikatzeko prestutasun osoa adierazi zuen. Honek guztiak ez du inolaz justifikatzen ordurako martxan zegoen estatu kolpea. Azaroaren 10ean Bolibiako estatuko plurinazionalako presidentek Evo Morales poliziek eta militarrek behartuta dimisioa aurkeztu zuen. . Dimisioa aurkeztu baino lehen Morales presidentearen, haren gobernuko kideen eta Bolibiako beste hautetsien senideen aurkako erasoak gertatu ziren. Militarrak eta polizia ondoan zituela Jeanine Áñez senatariak bere burua presidente izendatu zuen parlamentuaren babesik gabe. Komeni da gogoraraztea xingola presidentziala Bolibiako ejertzitoaren buruak ezarri ziola ezarri ziola eta Jeanine Áñez aldertiak azken hauteskundeetan botoen % 4a besterik ez zuela lortu. Ultra eskuina indarren honen ezaugarri nagusiak ultrakatolizismoa eta arrazakeriak dira. Bestek beste, bere sare sozialetan oso garbi uzten du. Estatu kolpea bultzatu duten indarrak errepresio bortitza abiatu dute inpunitate osoz, kaleetan protestan aritu diren herritarren aurka. Dagoeneko hogeita hamabi pertsona hil dituzte. Egoera horren aurrean, Tolosako EHBILDUtik gogor salatzen dugu Bolibiako estatu kolpea. Dei egiten diogu Moralesen kontra altxatu direnei indarkeriarekin amaitzeko, eskubide zibil eta politikoak errespetatzeko eta gatazka negoziazio eta akordioaren bidez konpontzeko. Estatu Kolpea bultzatu duten kanpoko eragileei ere injerentzia gelditzeko eta Boliviaren burujabetza errespetatzeko eskatzen diegu. Nazio Batuen Erakundearen babespean hauteskundeak gardenki eta demokratikoki errepikatzeko eskatzen dugu. Babesa adierazten diegu Evo Morales presidenteari eta El Alton eta Bolivia osoan kolpearen kontra mobilizatu diren herritarrei. Tolosako herritarrei dei egiten die Bolibiako Estatu kolpeari aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte har dezaten. Amaitzeko, gure elkartasuna adierazi nahi diegu justizia sozialaren alde, Ekuador, Chile, Colombia eta Latinoamerikako beste herrialdetan protestan ari diren herritarrei eta gobernuengandik jasotzen ari diren erantzun bortitza salatu nahi dugu.”

- ... Alkatea: “Ez dut gertakizuna, kontakizuna egingo berriz egingo baina gure aldetik, eta egoera horren aurrean, Eusko Alderdi Jeltzalearen Tolosako Udal taldearen izenean, eskatuko genuke hauteskunde garden eta demokratiko berriak deitzea, istiluak amaitzea eta elkarrizketara eta lasaitasunera itzultzea. Indar armatuei eta polizia kidegoei eskatuko genieke giza eskubideak errespetatzeko eta bakea eta pertsona guztien segurtasuna ziurtatzeko. Azkenik, 4.078 dekretua berehala indargabetzea eta giza eskubideak erreparatzeari buruzko nazioarteko estandarrak berrazartzea eskatu.”
- ... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU). “Leidorreko lehiaketaren inguruan hitz egin nahi genuke, batez ere, udalaren izenean atera duzuen oharrari buruz. Hasteko ez zaigu oharra udalaren izenean atera izana gurekin kontatu gabe. Iruditzen zaigu Udal Gobernuaren izenean argitaratu behar zenutela. Eta bestetik, pentsatzen dugu ohikoa izan zitekeen egoeraren aurrean ginela. Hau da, lehiaketa publikoa errekurritu da eta kontratuen inguruko errekurtsio administrazio organuak inpugnatuta hainbat puntu onartu eta lizitazioa bertan behera utzi duela. Hamaika alditan eman daitekeen egoeraren aurrean. Egoera horren aurrean, gure ustez, egokiena lehiaketa publikoaren arduradunak, udal gobernuak, azalpenak ematea izango litzateke. Herritarrok jakin beharko genuke pleguen funtsezko bertan behera



uzteko zein izan den arrazoa. Zuek berriz azalpenak ematerakoan ebazpenaren edukiaren gainean egin duzuen irakurketarekin ez gatoz bat. Alde batetik, pleguak egokiak direla azpimarratu duzue ateratako oharrean eta, bestetik, pleguan eskatutako baldintza herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko egin duzuela. Ez gara hasiko pleguak teknikoko egokiak diren eztabaidatzen, errealitatea garbia da, errekursoaren ondorioz hainbat puntu eta lizitazioa bertan behera gelditu dira, zuentzat pleguak teknikoki egokiak izan arren. Puntu honetan iruditzen zaigu erabili duzuen argumentua, gutxienez, itxia izan dela. Gaur egun, lehiaketa publiko gehienak errekurritzen direla esatea ez zaigu iruditzen asko argitzen duenik. Errekursoak ugaritu izanak ez du Gobernua bere arduraz salbuesten. Errekurritzea ohiko dela jakinda zorrotzago jokatu behar da, are zorrotzago beharko litzateke zein enpleguaren edukiarekin. Kalitatearen zerbitzuaren argudioari buruz, pleguak kalitatezko zerbitzua bermatzeko egin direla ez dugu inolaz ere zalantzan jartzen, baina gehiegizko eskakizuna jartzea eta ebazpenak horrela dio, kasu honetan horrela izan dela, ez du zerbitzuaren kalitatea hobea izango dela bermatzen. Are eta gehiago, normalean gehiegi edo gutxiegi ez da behin ere hobea izaten, neurrikoa izaten da egokiena. Gehiegizko eskakizun hori egiteak zerbitzuak kalitatea osoz eskaini dezaketen enpresa txikiak lehiatik kanpo utzi ditzake eta ebazpenak ere horri aipamena egiten dio. Gure ustez, funtsezkoa da eskaini behar den zerbitzua eta eskakizunen artean proportzionaltasuna egotea, esan dugun bezala, neurrikoa izatea. Bukatzeko, ez dugu zalantzen ateratako oharrean diozuen "Udalak beti legearen berme guztiekin prestatzen dituela pleguak herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko helburuarekin". Kontua da, ez gara borondatez ari, Udal kudeaketan ardura batzuk hartzen ditugu eta horrek gure jardunaren erantzule egiten gaitu. Egindako akatsak onartzea eta aurrerantzean berriz ere gerta ez daitezen, neurriak hartzea da jarrerarik zuzenena. Horregatik zuek ateratako oharrean ez dugu autokritikarik ikusi, ezta azalpen argirik ere. "

... Alkatea: "Leidorreko lehiaketa publikoaren inguruan nik behin eta berri esan dudan eta errepikatu nahi dudan gauza bakarra da udalak fede onez jokatu duela. Eta kontratazio prozedura honetan baita ere, ez besterik. Hori zalantza jarri nahi duenak gure erantzuna irmoa izango duela. Udalak honek ez du egin ez legez kontrako jardunik, ezta erregulartasunik ere. Garai bateko egoeratik honantz badago egoera berri bat, eta da kontratazio lege berri bat daukagula, kontratazio gaur egun oso konplikatu dela, udal langileak ordu asko aritzen direla eta eskaintzen dietela prozedura hauetara eta. honen ondorioz eta horregatik Udal honek ere lehen ez zegoen kontratazio teknikari bat ere baduela. Proposamenak neurtzeko irizpideak ahalik objektiboak jarri zituen Udalak, prezioa alde batetik, negozio bolumena eta esperientzia bestetik, kaudimena edo solbentzia. Errekurso edo alegazioak gero eta ohikoagoak dira eta hori ez da iritzi bat baizik eta konstatazio bat, da gaur egun administrazioan bizi den egoera eta erantzun eta estimatu egiten dira OARCen kompetentzia duen erakundeak estimatzen duenean. Kasu honetan esperientziaren eskakizuna gehiegizkoa dela esan du OARCek, ekonomikoari dagokiona ondo dagoela ikusi du. Beraz, hori zuzendu eta plegu berriak aterako ditu Udalak. Baina nik, behin eta berriz, garbi adierazi nahi dut edozein enpresak eta, kasu honetan, Molatuk eskubide osoa duela eta zilegi dela OARCera joatea eta baita komunikabideetara jotzea. Udal gobernu honek ez du horrekin inongo arazorik. Gaia da MOLATUK komunikabideetara igorritako prentsa oharrean gairak ezin diren mugak edo langa batzuk gairak gairak, udal langile baten lana zalantzan



jartzea alde batetik, eta bestetik, ia ia prebarikazioaz hitz egin duela. Horren aurrean Udalak ezin du isilik geratu eta hori zuekin bilera batean konpartitu genuen eta hori azaltzeko beharra ere konpartitu genuen. Eta hori izanda Molaturen prentsa oharrari erantzuteko arrazoi nagusia. Baina nik berriz errepikatu nahi dut garbi gera dadin eta beste ezer ulertu ez dadin, udal honek kontratazio honen inguruan ez du irregulartasunik burutu eta herritarren lan batzordean, udal langileak, beraiek eskatu zuen bezala langilearen jardun teknikoaren ganean ezarritako zalantza garbitzeko beharra ere ikusi dugula. Oharrean aipatu bezala, Leidorreko kontratazioan udalak burututako jardunbideak helburu bakarra izan duela eta da herritarrari ahalik eta zerbitzu onena ematea. Ez besterik.”

... Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU): *Bilera hartan, bozeramaileen bileran, orduantxe jaso genuen OARCen ebazpena, ez genekien edukiaren berri eta irakurri bakarra genuena zen Molatuk Atarian egindako deklarazioak eta, egia esan, gogorak ziren. Aztertu behar dugu gehiago gaia baina horretan ez gara sartzen. Horrelako akusazioak egonda, eta guk, gero ebazpena lasaitasun handiagoz irakurri ondoren, bai iruditzen zaigu Molatuk errekurritutako hiru klausula horiek azalpen bat merezi dutela. Agian, ba besterik gabe Donostiako udaletik hartu ditugulako edo ez dakit zer arrazoiengatik baina, azalpen bat. Aipatzen ditu "Solvencia profesional exigida" desproporzionaltasuna ikusten du eskatutako limite horietan; hainbat lan metatzeko aukera ez ematea ere iruditzen zaio lehia mugatzea dela. Nik uste ez dagoela, zalantzan jarri gabe inongo momentu honetan fede txarrik egon denik, baina atzera bota diren momentutik agian esplikatuz leike prozesua nola izan den, nondik norako eta zergatik hartu diren neurri horiek. Berriz diogu gure ustez gehiegizko eskakizunak kalitatearen izenean ezartzea ez da oso zuzena, inportantea da kasu honetan enpresak txikiei ere aukera emango zaiolako eta eskakizunak gehiegizkoa direnean ez da horrela. Uste dut OARCek bere ebazpenean nahiko garbi azaltzen dituela gauza batzuk eta uste dut esplikatuz zitezkeela argiago.”*

... Alkatea: *“Esplikatuz daitezke eta esplikazioak eskatzen direnean beti ematen dira. Molatu berak eskatu zituen azalpenak udal honetan eta kontratazio teknikari berarekin argibideak jasotzeko aukera izan zuen. Hemen baldin badaude zalantza teknikoak erabakiak ez dira politikoak, jartzen diren neurrian teknikoak dira azalpenak emateko eragozpenik ez dago. Prentsa ateratzeko oharraren arrazoia izan da Molatu ateratako oharrak bidea ematen duelako izan ez den gauza bat pentsatzeko eta hori errotik moztu egin behar dela. Neurria esaten duzunean, OARC azkenean modu batera esateko, epai batzuk bezala,. Orduan, udal bateko teknikaria pleguak egiten dituenean ez ditu nahita neurririk gabekoak jartzen, bere ustez neurrikoak ziren. Pentsa ezazu erabaki hori ere errekurrituz daitezkeela nahiz eta guk ez errekurrituko. OARCek egindako ohartarazpenari kasu egin eta kito. Hori ez da mugiezina den iritzi eta askotan errekurritutakoan eta iritziak ere aldatzen dira. Pentsa ezazu ere OARCen erresoluzioa Tolosako udalak epe kanpo jaso duela eta baztertu zitezkeen. Lehenago ere izan zen OARCekin beste afera eta OARCen emandako irizpide eta aholkuei erantzun positiboa eman diola Tolosako udala. Gaia lekuz kanpo atera izan nahi da eta guk bere horretan jarri izan nahi dugula. Oso gauza teknikoak direnez esplikazio komunikabideetan oso zaila da, baina inorrek zalantzarik balu, noski, udal ordezkariak nola ez, edozein garaieran, baina inongo herritarra zalantzarik izango balu etorri liteke eta argibideak jasoko ditu. “*



TOLOSAKO
UDALA

... Begoña Garmendia Vazquez, Udal Idazkaria: *“Nik uste dut oso garbi geratu behar duela, kasu honetan OARCen egin duena, lehendabizi, nik irakurri dudan prentsako oharrean aipatzen da kaudimena ekonomia gutxienekoa dela, eta azken finean, kaudimen ekonomikoa izan da arrazoi bat parte ez hartzeko. Orduan, hasten gara afirmazio batekin, benetan, egiazkoa ez dena. Bigarrena, OARCen egin duena izan da legearen interpretazio bat. Guk asumitzen dugu, eta niri dagokidan neurrian departamentuko arduradun bezala, nik ditudan erantzukizunak asumitzen ditut. Baina OARC.ek egin duena izan da interpretazio bat eta ez lege testu zuzenean aplikatu. Guk errespetatzen dugu bere irizpidea eta aplikatuko dugu. Eta hirugarrenarekin ere interpretazio bat eman du esperientziaren puntuazioari dagokiona. Ez da legearen artikulua bat ez dela bete, baizik eta, berak egin duen interpretazioa gai honi buruz. Erabakia oinarritu da legearen interpretazioetan, eta egia esateko oso konplikatu da lege horren interpretazioa. Azkenik, udal langileari dagokionez, egiten diren aipamenetan beste sententziak aipatzen dira, aukera izan du Molatuk aipatu dituen sententzia horiek irakurtzeko eta esan beharra dago sententzia horietan ez dela oharrean agertzen dena adierazten. Esaten dena da, momentu batean aurkeztu zuten dokumentazioa oso zalantzarria zela, ez zeukala fidagarritasunik eta zegoelako inongo arrazoirik langile horren honorabilitatea edo zalantzan jartzeko. Aldiz, kontrakoa esan da komunikabideetan eta, nire ustetan, oso larria da. Hemendik adierazi nahi dut langile horrekin langile guztion elkartasuna.”*

Jarraian, herritar batek hitza hartu. Parte hartzeak DVDn jasota daude espedientean.

Besterik gabe, 21:00ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA